

*Oteiza bektoreak mugarritu gabe jarraitzen du gure errealitate transkontinentalean. Gure errealitate politiko eta artistikoan utzi zuen arrastoa ezabaezina da.*

*Inongo adituk ez du ukatuko: Oteizari heltzea eguzkia esku bakarrez estaltzen ahalegintzea da.*

*Bide marjinaletatik aztertuko dugu artistaren mugagabetasuna, arreta jarritz bere hitz galduetan, zeinetan gauza hutsalek irakaspén handiak aurreratzen baitituzte. Berrogeita hamarreko hamarkada aurreko bere hiru idatzien inguruko irakurketa partekatua bitartez, deserriraturata (Madrilen eta Kolonbian, besteak beste) egon zen gaztaro garaitik landu izan dituen topikoak soildu nahi dira, eta ikusi nahi da topiko horiek gure garaira iritsi ote diren eta egun erabiltzen ditugun topikoekin bat egiten ote duten.*

*Instruktore eta landa-ikertzaile modura zuen profila (diziplinaz gaidikoa) aldarrikatuko dugu. Bere prehistorizismoa eta biziberritzeko premia landuko dugu, arteaz eta lengoaiaz hitz egiteko erabili zuen askatasun epistemikoa aztertuko dugu. Bi faktore horiek, artea eta lengoaia, kultura ororen faktore dira, bizirauteko borrokatzen diren identitate kolektiboen sortzaile dira. Azken batean, bizitza eta heriotza (gaiditzeko) kontua da, ezta?*